


ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO INGURUMEN KUDEATZAILEAREN IZENDAPENA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEAK Jose Ignacio Ortego Garcia fakultateko teknikaria izendatu du ingurumen kudeatzaile izateko eta honako hauek dira bere eginkizunak:

- Fakultateko Ingurumena Hobetzeko Sistema zehazteko proiektua zuzentzea.
- Ingurumenaren arloko arauetan zehaztutako baldintzak betetzen direla zaintzea, erakundeak ingurumenaren arloan lortzen dituen emaitzak etengabe hobetuko direla bermatzeko.
- Sistemaren funtzionamenduaren berri ematea goi zuzendaritzari, sistema ikuskatzeari eta hura etengabeko hobekuntza prozesurako oinarritzat hartzeari begira.
- Hautatutako irtenbideen bideragarritasunaren azterketa (teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa) kudeatzea.
- Fakultateko Ingurumena Hobetzeko Taldea/k sustatzea.
- Erakundearen ingurumen egoerari buruzko ondorioak ateratzeko informazioa prestatzea, eta goi zuzendaritzari hobetu beharreko alderdien zerrenda proposatzea, Ingurumena Hobetzeko Planean garatzeko, hala badagokio.
- Fakultateko ingurumena hobetzeko planak betetzen direla zaintzea.

Leioa, 2015eko ekainaren 23a


 Esther Domínguez Pérez
 ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEKO DEKANOA

